277. zk.
Bigarren aroa
Maiatzak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Aitor Txabarri kazetaria
6-7. orrialdeak

Kirolak
Super Amara Bidasoa Atletiko Taldea
8. orrialdean

Dantzak harrapatuta

Lehiaketetan aritzen diren taldeak ditu Pauso-K akademiak

3 Berri Laburrak
4-5 Erreportajea Joxe Mari Lopetegi bertsolaria.
9 Kirolak Erroibidek igoera fasean galdu du.
10 Erreportajea Laster zabalduko dute Palmera-Montero gizarte zentroa.
11 Haurren Leihoa El Pilar HH
12 Gazteen Lanak San Vicente de Paul DBH1
14 Gazte infor
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Miren Arozena
Ardiak Bidasoa Ospitalean.

Bidaltzen dizkiguzuen argazkien artean, bat aukeratu eta argitaratuko dugu, zenbaki bakoitzean.

Edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen amaieran, argitaratutako argazki guztien artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Javier Esteban Indart kalea

IUA: 8138

Javier Esteban Indart kalea San Migel auzoan kokatua dago, Zubiaurre kaletik Bartolome de Urdinso kaleraino doa, Basurko kalea zeharkatuz.

Javier Esteban Indart irundarra 1890eko abenduaren 30ean jaio zen. Parisen hil zen 1966an. Merkataritza peritu izateko ikasketak egin zituen San Luis ikastetxean, eta Bilboko Goi Mailako Eskolan lortu zuen titulua. Zenbait urtez bankan aritu zen lanean.

Bere lehenengo idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egin zituen, eta 1903an Irungo Udalak Euskal Jaiak ospatzeko antolatutako lehiaketa batean sari bat irabazi zuen, euskarazko lan batekin. “El baserritarra” aldizkariak elkarrizketa batzuk eskaini zizkion, erdia euskaraz eta beste erdia gazteleraz. Irungo “El eco” astekariaren sortzaileetako bat izan zen, eta “Ecos del Jaizkibel” astekari hondarribiarreko eta “El Bidasoa”ko kolaboratzaile ere izan zen, haren bigarren eta hirugarren garaian. Orduan ospetsu egin zituen Roquefort eta Jose Mª Larramendi goitizenak. “El Bidasoa” aldizkarian Luis de Uranzurekin Irungo gai historikoen inguruan eduki zuen polemika famatua da.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Alde zaharreko eraikinetan termiten presentzia aztertzeko ikuskatzeak egingo dituzte

Rehabite eta Tecnalia enpresetako arkitektoek ikuskatze lanak egingo dituzte Irungo alde zaharrean, termiten presentzia detektatzeko. Maiatzaren 16an, 17an eta 18an ariko dira. Birgaitze Plan Bereziaren barnean dauden eraikinak aztertuko dituzte, termitek arotzerian eta egituran eragindako degradazio seinaleen bila. “Etorkizuneko kalte handiagoak ekidin nahi ditugu”, adierazi du Xabier Iridoy Hirigintza arloko ordezkariak. Dunboako kanaletik Jesus kalera, eta Eliza kalearen hasieratik Eguzkitzaldea kalearen hasierara egingo dituzte ikuskatzeak. Hormigoizko eraikinak ere badira inguruan, baina egurrezko egitura dute eraikin askok. 110 aztertuko dituzte, horietatik bi, publikoak: Urdanibia jauregia, eta Mirarietako Ama Birjinaren ermita.

Lehenengo fasean, enpresetako langileek eraikinetako sotoak, beheko solairuak eta lehen solairuak aztertuko dituzte. Bi bikote ariko dira eraikinak ikuskatzen, eta ordu erdiko inspekzioa egingo dute bakoitzean. “Jabeekin elkarrizketak egingo ditugu, hasteko, haiek arrastoren bat topatu ote duten jakiteko”, argitu du Maider Arana Tecnaliako teknikariak. Gero ikuskatze bisuala egingo dute. Eraikinen batean termiten aktibitatea antzematen baldin badute, zelulosa kaxak jarriko dituztela azaldu du Aranak: “Termitak jaso ahal izango ditugu horrela, analisi genetikoa egiteko, eta alde zaharrean zenbat kolonia egon daitezkeen irudikatzeko”. Eraikin bakoitzeko fitxa landuko dute enpresek, eta termitak eragindako inguruak identifikatuko dituen mapa ere osatuko dute.

Udalaren esku jarriko dute txostena, eta inspekzio sakonagoak egiteko edo tratamenduetarako gomendioak egingo dituzte, beharren arabera. Bigarren fasean, esku-hartze plan bat prestatuko dute, detektatutako koloniak deuseztatzeko helburuarekin. Momentuz, termiten jarduera fokuak topatu dituzte Korrokoitz, Larretxipi eta Eguzkitza kaleetan.

Cipriano Larrañaga kalea eraberritzeko lanari ekin diote

Euskotren geltokiaren eta Jacobo Arbelaitz kalearen artean lanean hasi dira beharginak, Cipriano Larrañagan. Kalea berriro urbanizatzeko helburua du Irungo Udalak. Oinezkoentzako lehentasuna izango du kaleak, lanak amaitzen dituztenean. Horretarako, igoeraren noranzkoan ezker aldean gelditzen den espaloia lau metrora zabalduko dute. Eskuinekoak gutxieneko bi metroko zabalera izango du. Alde horretan egongo dira zamalanetarako eta zaborra biltzeko edukiontzietarako guneak. Espaloiaren eta errepidearen arteko bereizketa zoladura bidez egingo dute, baina maila berean egongo dira. “Proiektuaren helburua da kaleak segurtasun handiagoa izatea eta Zabaltza plazaren oinezkoentzako luzapen bilakatzea”, adierazi du Cristina Laborda Obra eta Mantentze Lanen arloko ordezkariak.

Lan horien aurkako sinadura eman dute inguruan bizi diren 210 irundarrek. Proiektuaren hainbat ezaugarriren kontrako iritzia azaldu dute: “Aparkatzeko plazak desagertuko dira, trafikoan kalteak izango dira, eta tabernek terrazak jarri ahal izango dituztenez, kalea estuagoa izango da oinezkoentzat”. Udalak, bere aldetik, baieztatu du herritarrek egindako ekarpenak kontuan hartu dituela, zenbait topaketa publikotan eta Erdialdeko Auzo Elkartearekin eta ostalariekin egindako bileretan. Aparkalekuen arazoari aurre egiteko, hiriko lehen TAO gune zuria jarriko du udalak inguru horretan. 25 aparkaleku kenduko ditu Cipriano Larrañagan, baina bizilagunentzako plazak jarriko ditu Jacobo Arbelaitz, Miguel de Astigar, eta Txoantenea kaleen artean. Egoiliarrentzako TAO plazak izango dira.

Itzaletik argira

Hamarkadak eman ditu Joxe Mari Lopetegi bertsolari irundarrak ahanzturan galduta

Moldeak apurtu zituen Joxe Mari Lopetegik. Euskalduna zen, abertzalea ez, ordea. Alderdi Errepublikanoaren alde ibili zen bertsotan, XX.mendearen lehen herenean. 1936ko irailean Iparraldera ihes egin behar izan zuen, eta erbestean hil zen, Arrueta-Sarrikotan, Nafarroa Beherean. Haren ibilbidea isilpean egon zen urtetan, Joxan Elosegik 2004an bertsolariaren inguruko liburua argitaratu zuen arte. Aurten, Lopetegiren ezagutzari beste bultzada bat eman nahi izan dio Txingudi Bertso Eskolak.

Bertso tailerreko kideak.

Joxe Mari Lopetegiren ibilbidea aztertu du Txingudi Bertso Eskolako bertso tailerrak. “Haren dibulgazioa egin nahi dugu orain, ikasturteari amaiera emateko”, azaldu du Xabi Bengoetxea tailerreko kideak. Hasteko, Joxan Elosegi itzultzaile eta idazle irundarraren hitzaldia antolatu dute Oiasso Museoan, apirilaren 13an, Joxe Mari Lopetegi jaio zen egunean. Bertsolariari buruzko ikerketa egin eta *Joxe Mari Lopetegi, Errepublikanoen bertsolaria* liburua argitaratu zuen Elosegik, duela hamabi urte. Onartu du ez zuela nahi bezain besteko oihartzuna izan, eta Lopetegiren figura ezezaguna dela oraindik. “Barrera handi bat dago: hizkuntza. Irunen jende gehien-gehiena erdaraz bizi da”, argudiatu du Joxan Elosegik. Uste du, hala ere, “itxaropentsu” jarduteak merezi duela. Bertsolaria bera hartu du eredu: “Lopetegik ez zuen sekula itxaropena galdu”.

1875eko apirilaren 13an jaio zen Joxe Mari Lopetegi, Irungo Santiago kaleko lehenengo etxean. Azken Karlistaldiaren garaia zen. Hurrengo urtean bukatu zen gerra, karlisten porrotarekin. Liberalen mende gelditu zen Irun, eta Lopetegi bera ere, giro liberalean hazi zen, boluntario liberala izan baitzen haren aita. Beste ondorio batzuk izan zituen, ordea, gerraren amaierak: foruen abolizioa, eta batez ere, aduanen muga lekualdatzea, Ebro ibaiaren ertzetik, Bidasoaren ertzera. Aldaketa horrek, trenbidea Irunera heltzearekin batera, migratzaileen etorrera eragin zuen, eta ondorioz, gaztelaniaren presentziaren hazkundea ere bai. 1910eko hamarkadaren amaierarako, Irungo kaleetan gaztelania “nagusi” zela baieztatu du Joxan Elosegik. “Prozesu horren lekuko izan zen Lopetegi”, azaldu du: “Aldaketa horien aurrean sufritu zuela antzematen da bere lehen bertsoetan”.

Ordura arte, jende askorentzat pentsaezina den arren, euskara barra-barra hitz egiten zen Irunen. Bertsolariak ere bazeuden, eta Joxe Mari Lopetegi zen horietan onenetakoa, Basurkorekin batera, besteak beste. Hiriko jardueretan aktiboa izan zela baieztatu du Elosegik: “Hiriko festa eta ekitaldi guztietan parte hartu ohi zuela dakigu”. Herriko eskolako giroari buruzko bertso batzuk utzi zituen Lopetegi gazteak, euskaldunek pairatzen zituzten zigorren berri emanez. “Irunen euskara galtzen ari zela, eta zerbait egin beharra zegoela argi ikusi zuen”, adierazi du Elosegik. 1903an argitaratu zituen lehen bertsoak, Bilboko Ibaizabal aldizkarian. Gaia ez zen politikoa, euskarari buruzkoa baizik. *Semeak amari* izenburua daramate bertsook. Ama, jakina, euskara da Lopetegirentzat.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



Bertsolari errepublikanoa

Joxe Mari Lopetegik argitaratu zituen bertso gehienak, ordea, politikoak izan ziren. Kausa baten aldekoak, gainera: errepublika. Doktrina liberalaz harago, beste urrats bat eman beharra zegoela iruditu zitzaion Lopetegi gazteari. Joera antiklerikala ere bazuela argitu du Elosegik, baina ez zela "ateo militantea". 1911n zinegotzi egin zuten, eta hamar urte inguru eman zituen udaletxean. Bitartean, negozioak ere izan zituen. Etxegintzan ibili zen, igeltseroen kontratista izan baitzen. Izan ere, Alderdi Errepublikanoa burgesa zen, neurri handi batean. Familia ideologiko asko hartzen zituen bere baitan. Baina jatorri burgesaren ezaugarria konpartitzen zuten gehienek. "Ez zuten klase borroka edo gizarte ereduaren aldaketa planteatzen", argitu du Elosegik.

1910eko hamarkadan hasi zen Lopetegi errepublikanoen aldeko bertsogintzan. Batez ere, aldizkari errepublikanoetan publikatu zituen bertsoak. Mitinetan ere ibili zen. 1923an, ordea, Primo de Rivera militarrak estatu kolpea eman eta diktadura ezarri zuen. Garai hartan, Lopetegi bertsolariaren joera aldatu egin zen, errepresioaren eta zentsuraren ondorioz, noski. Herriko giroari buruzko bertsoak dira gorde direnak. Irunen bizi zen Lopetegi, eta ez zen herriz-herri ibili, garaiko beste bertsolari batzuen moduan. 1930ean, diktaduraren azkenetan hasi zen berriro errepublikaren alde bertsotan. 55 urteko gizona zen ordurako, eta zortzi seme-alaba zituen, 20 urterekin ezkondu baitzen, Gillerma Bengoetxearekin.

Errepublikaren aldarrikapenaren bezperan ospatu zituen Lopetegik 56 urteak, 1931ko apirilaren 13an. Errepublika zaintzearen eta sendotzearen aldeko mezua zabaldu zuen hurrengo urteetan. Batez ere Irungo prentsa errepublikanoan argitaratu zituen bertsoak, La Fronteran edo Irun Republicanon, esaterako. Elosegik azpimarratu du kezka handia zuela: "Bazekien errepublika oso ahula zela, eta botako zuten beldur bizi izan zen". 1936an iritsi zen estatu kolpea, eta ondorengo gerra. 61 urte zituen ordurako, hortaz, ez zuen frontean parte hartu. Seme bat ordea, Erlaitzen galdu zuen. Irailaren 3an ihes egin zuen Lopetegik Hendaiara, familiarekin. Erbestean bertsotan hasi zen berriro. "Garai hartakoak dira bertsorik indartsuenak eta sentituenak", nabarmendu du Elosegik.

Sei urte eman zituen errefuxiatu gisa, eta 1942an hil zen, Nafarroa Behereko Arrueta-Sarrikota herrian. Ezin izan zuen sekula jaioterrira bueltatu. Gainera, agintari frankistek Lopetegi hil zela jakin zuten momentuan, senideei 125.000 pezetako isuna ezarri zieten, "erantzukizun politikoengatik". Santiago kaleko etxea, eta egungo Sarjia kalean zegoen beste bat saldu behar izan zituzten ordaintzeko.

Zer dela eta isilpean?

Ahanzturaren itzalean egon da Joxe Mari Lopetegi hamarkadetan zehar. Frankismoaren eragina kontuan hartzekoa da, jakina. Baina bitxia da, adibidez, Antonio Zabala euskaltzain eta herri-literaturaren ikerlariak haren inguruko ezertxo ere argitaratu ez izana. Bertsolariei buruzko hamarnaka liburu idatzi zituen, Lopetegiren inguruko erreferentziarik, aitzitik, ez zuen egin. Ezagutzen zuela ziurtatu du Joxan Elosegik, Txirritak Lopetegiren erretratu "ederra" egin zuelako, 1931n, Bertsolaria aldizkarian. Hortaz, Lopetegiren lana ezkutatzeko arrazoi ideologikoak egon litezkeela iradoki du Elosegik.

Bestalde, errepublikaren aldeko mugimenduek eta elkarteek Lopetegiren inguruko aipamenik egin ez izana ere deitoratu du Joxan Elosegik, haren bertsoek "ezin hobeto" irudikatzen dutelako garaiko errepublikano baten pentsaera. Kasu horretan, arrazoiak linguistikoak direla uste du ikerlariak: "Euskaraz idatziaz direnez, badirudi bertsoek ez dutela baliorik". Lopetegik pairatu duen bazterketa gainditzeko, bultzada irundarrek eman behar dutela aldarrikatu du Elosegik. Txingudi Bertso Eskola bere ekarpena egiten ari da. Hitzaldia antolatu du, Wikipediako Joxe Mari Lopetegi sarrera osatu du, eta ekainerako jaialdi bat antolatzen ari da, hiriko beste zenbait eragilerekin batera.

“Palestinarren eguneroko gogorraren ikuspegietako bat azaleratu nahi dut”

Aitor Txabarri

Ezinbesteko baliabidea da ura, mundu guztian. Zer esanik ez, nekazaritza jarduera ekonomiko nagusi duen lurralde batean. Hori dela eta, uraren eskasiak ondorio larriak izan ditzake nekazarien bizimoduan. Horixe da Palestinako nekazariek bizi duten egoera, ezezaguna jende askorentzat. Aitor Txabarri kazetari irundarrak gaia landuko duen dokumentala osatu nahi du. Israelen okupazioak Palestinako uraren eskasian duen eragina azaleratzeko asmoa duela baieztatu du. Maiatzaren 16an hartuko du hegazkina, eta hamar egunez egongo da Palestinan, dokumentalerako elkarrizketak egiteko helburuarekin. Gobernuz kanpoko erakundeen babesa du, baina bakarrik ekingo dio abenturari.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor Bacalaos

Zein ibilbide egin duzu, kazetari gisa, freelance moduan lan egitera jauzi egin aurretik?
EHUn Kazetaritza ikasi nuen, eta Masterra Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, gatazka armatuei, bakeari eta mugimendu sozialei buruz. Euskal Herrian, praktikak Radio Donostin egin nituen. Bartzelonan, Centre Delas gobernuz kanpoko erakundean, komunikazio arloan ibili nintzen lanean.

Atzerriko zure lehen esperientzia izango da Palestinakoa. Nola hartu duzu erabakia?
Lagun bat ere Palestinan izan zen, urarekin zer ikusia zuen lan bat egiten. Artikulu pila bat bidali zizkidan, gaia interesgarria iruditu zitzaidan, eta aurrera egitea erabaki nuen. Dokumentazio lan handia egin dut, artikuluak irakurriz etab. Gainera, GKE ezberdinekin harremanetan jarri naiz. Babesa eta aholkularitza jaso ditut, Mundubat elkartearen eta Antxeta Irratiaren bidez. Ramallah-n beste GKE baten babesa izango dut. Nire zain izango ditut bertan.

Nolakoa izan da bidaiaren prestaketa?
Luzea eta gogorra. Okerrena, agirien tramiteak izan dira. Enbaxadarekin harremanetan egon naiz hilabetetan. Nik Gazan sartzeko asmoa nuen, baina ezinezkoa izango da azkenean. Horregatik, alde batera utzi dut ideia, eta Zisjordanian egingo dut erreportajea. Traba pila bat jarri dizkidaten arren, ahalegin handien ondoren, lortu dut Zisjordanian sartzeko baimena emango didan agiria.

> "Israelek ez du ura lurralde palestinarrera iristen uzten"

Zer nolako erreportajea egin nahi duzu?
Palestinarren eguneroko gogorraren ikuspegietako bat azaleratu nahi dut. Lurralde nekazaria da Palestina, batez ere. Baina Israelek ez du ura lurralde palestinarrera iristen uzten. Ondorioz, zailtasun handiak dituzte lurra lantzeko. Palestinarren eguneroko bizitza ikaragarri konplikatzen duen aspektuetako bat da.

Zein iturrirengana joko duzu?
Hiru multzotan banatu daitezke. Batetik, bertako nekazariekin hitz egingo dut. Bestetik, Palestinan lan egiten duten GKEekin, gaiarekin lotuta aurrera eramaten dituzten ekimenei buruz. Azkenik, ikuspegi institzionala ere lortzen saiatuko naiz. Palestinako eta Israelgo agintari batzuekin hitz egiteko aukera izango dudala uste dut.

Zein formatutan bilduko dituzu elkarrizketa horiek?
Bideoan. Ideia da ordu erdiko edo berrogei minutuko dokumental labur bat egitea. Baina bertan nagoela aprobetxatuta, zer edo zer idazten ere saiatuko naiz. Ahalik eta material gehien biltzea da nire asmoa. Hamar egun besterik ez ditut pasako Palestinan. Beraz, lanean emango ditut egunak, eta goitik behera programatuta edukiko ditut gainera. Muntaketa eta bestelako lanak bueltan egingo ditut, Irunen.

> "Erregistro zorrotzak pasa behar dira"

Uste duzu trabak edukiko dituzula material guzti hori Palestinatik ateratzeko?
Seguru. Esan didatenez, behintzat, oso zaila da materiala handik ateratzea. Erregistro zorrotzak pasa behar dira. Hori dela eta, nire ideia da egunero-egunero material guztia internet sarera igotzea. Beharbada gero ez dut arazorik edukiko. Baina badaezpada, hobe prebentzio neurriak hartzen baldin baditut.

Aurreikusi al duzu dokumentala non edo nola argitaratuko duzun?
Alde batetik, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren bidez. Mundubat elkartearen eta Antxeta Irratiaren bidez ere bai. Bestalde, 5W aldizkariarekin harremanetan nabil, eta badirudi haiekin argitaratzeko aukeraren bat egon daitekeela. Niri interesatzen zaidana da jendeak dokumentala ahalik eta leku gehienetan ikusi ahal izatea.

Aurrerago atzerriko gatazketan lan egiten jarraitu nahiko zenuke?
Bai, horretan espezializatu naiz, eta lan hori egin nahi nuke. Bidaia honen ondoren, Greziaren eta Mazedoniaren arteko mugara joatea pentsatu dut, errefuxiatuen gaiari buruz beste erreportaje bat egitera. Eta aurrerago, Venezuelara joateko ideia dut, Bartzelonan ezagututako beste hiru lagunekin.

Nola finantzatuko dituzu bidaia guzti horiek?
Lehenengo bidaia honetan, unibertsitatearen laguntza txiki bat jaso dut. Baina gainerakoan, nire inbertsioa egin behar izan dut. Masterrean askotan azaldu izan digute, garai batean hedabide gehienek zutela nazioarteko atal bat, eta kazetariak atzerriko informazioa biltzera bidaltzen zituztela. Gaur egun, atzerrian dabiltzan guztiak freelance-ak dira. TV3ko kazetari batek kontatu zigun Ukrainan egon zenean, bera zela lantaldean zegoen kazetari bakarra.

Prest zaude freelance gisa aritzeko?
Bai, niri oso interesgarria iruditzen zait. Argi dago asko arriskatu behar dela, dirua aurreratu behar delako. Gakoa da aldez aurretik hedabideekin adostea zer argitaratuko dizuten, eta zeren truke. Hedabide askorekin lan egin behar izaten da. Egia da orain gaztea naizela, eta energia eta gogoa ditudala. Aurrerago ez dakit zer gertatuko den. Baina momentuz oso animatuta nago, proiektu asko ditut buruan.

Ohorezko Mailara bidean

Igoera lortzeko helburuarekin ekin diote Super Amara BATeko neskek 2016ko ligari Lehen Mailari eusteko lana izango dute mutilek

Indarrez hasi dira Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko neskak Estatuko Lehen Mailako Ligan. Aurreneko jardunaldia irabazi dute, eta Ohorezko Mailara igotzeko lehian izango dira ekainean. Mutilek, ordea, ezin izan dute azken postua ekidin. Hortaz, mailari eusteko borrokatu beharko dute azken jardunaldian. Nolanahi ere, bi taldeetako kide gehienentzat, urteko hitzordu nagusiak dira ligako jardunaldiak. Sasoi betean iristen ahalegintzen dira, klubari ahal bezain besteko ekarpena egiteko.

Estatuko Lehen Mailan lehiatzen ari dira Super Amara BATeko bi taldeak. Hiru jardunaldi izango dituzte guztira, eta lehenengoan parte hartu dute dagoeneko. Apirilaren 30ean izan da, Durangon BATeko neskentzat, eta Huescako Monzonen, mutilentzat. Kontrako helburuekin ekin diote taldeek ligari. Neskak igoera lortzetik gertu izan ziren iaz, eta aurten ere, Ohorezko Mailan aritzeko txartela lortzen ahaleginduko dira. Mutilek, aldiz, nahikoa lan izango dute mailari eustearekin.

Aurreikuspenak bete dituzte lehen jardunaldian. Neskek Durangoko lehia irabazi dute, uste baino abantaila handiagoarekin, gainera. Zalantza batzuk zituzten, arrazoi ezberdinengatik. “Zenbait hutsune genituen, lesioen eta ikasketen ondorioz”, azaldu du Teresa Zaragüeta atletak. Aurkarien maila azpimarratu du, bestalde, Ibon Muñoz kirol zuzendariak: “Bizkaiko Bidezabal taldea, batez ere, indartsu dabil”. Durangoko jardunaldian, ordea, 28 puntuko abantaila lortu zuen BATek Bidezabalekiko. Nagusi izan ziren bidasoarrak. Hamar proba irabazi zituzten, zazpi bigarren postu eta lau hirugarren lortu zituzten. Erregulartasuna izan zen BATeko nesken arma.

Garaipen handia izan zen neskentzat, batez ere, oso talde gaztea dutela kontuan hartuta. 32 neska izan ziren parte hartzaileak. Horietatik, senior mailakoak, sei besterik ez. Promesa mailako bost, zortzi junior, hamaika jubenil eta bi kadete aritu ziren BATeko taldean. Nesken adina kontuan hartuta, taldean “urduritasuna” hedatzea arrunta dela adierazi du Muñozek. Hala ere, igoeraren helburuak presiorik eragiten ez diela baieztatu du Zaragüetak. “Ilusio handia dugu”, erantsi du. Haurtzaro, Lasarte-Oria, Portugalete eta La Blanca talde filialetako atleten laguntza izan dute lehen jardunaldian.

Lehen postuari esker, bigarren jardunaldia “trantsiziokoa” izango dela argitu du Ibon Muñozek. Maiatzaren 21ean jokatuko dute jardunaldi hori. Hirugarrenean, ekainaren 11n, Ohorezko Mailara igotzeko lehian izango dira Super Amara BATeko neskak. Lehen bi jardunaldietan ez bezala, proba bakoitzeko atleta bakarrak parte hartuko du orduan. “Joan den urtean gertu izan genuen, baina uste dut aurten igoera lortzeko moduan egongo garela”, baieztatu du Zaragüetak. Ohorezko Mailara igotzeak ez ditu klubeko arduradunak itsutzen. Hala ere, neskentzat “esperientzia ederra” izango litzatekeela uste du Ibon Muñozek. Teresa Zaragüetak berretsi du: “Maila horretan lehiatu ahal izatea ikaragarria izango litzateke”.

Taldea osatzeko zailtasunak

Laugarrenak izan dira Super Amara BATeko mutilak ligako lehen jardunaldian, Monzonen (Huesca). Talde bakarra ere ezin izan dute gainditu. Ondorioz, bigarren jardunaldian ahalik eta maila onena ematen saiatuko dira, baina hirugarrenean, ekainaren 11n, jaitsiera ekiditeko lehian izango dira, nolanahi ere. Nesken taldean hutsuneak izan baldin badituzte, are handiagoa izan da atleten falta mutilenean. Min hartutako atleta batzuk, gainera, ez dira hurrengo jardunaldietan parte hartzeko moduan osatuko. “Hirugarren posturako lehiatu nahi genuen, baina egoera horretan, ezinezkoa izan da”, azaldu du Muñozek. Jaisteko arriskuan izango dira mutilak ekainaren 11n, baina ez dute uste larri ibiliko direnik. “Proba bakoitzeko atleta bakarrarekin, lehiakorrak izan gaitezke”.

Ligako lehen bi jardunaldietan, bina atleta behar izaten dituzte taldeek proba bakoitzeko. Tamaina horretako taldeak osatzeko zailtasunak izaten dituzte. “Masa handia behar izaten da. Indarrez datozen gazteak, eta atletismoan jarraitzeko ilusioa duten helduak ere bai”, adierazi du Ibon Muñozek. Azken horientzat, liga da entrenatzen eta lehiatzen segitzera animatzeko motibazioa ematen diena. Mikel Ruiz Lasak azaldu du: “Taldeari ekarpena egin ahal izateak norberaren lana baloratzeko balio du. Horregatik, ligarik egongo ez balitz, senior mailan gabiltzan gehienok ez genuke entrenatzen jarraituko”.

Klubeko beteranoak eta gaztetxoak nahastuta egoten dira taldean. Horrek giro ederra sortzen duela aipatu du Ruiz Lasak: “Proba bakoitzeko bi gaudenez, beharbada klubeko gaztetxo bat egokitzen zaizu ondoan. Ederra da elkar animatzea eta laguntzea”. Bestalde, banakako Espainiako Txapelketetara joateko aukerarik ez duten atletentzat, maila horretako lehiaketetan parte hartzeko aukera bakarra da liga. “Bidaiatzea eta taldeko giroa bizitzea esperientzia politak dira”, adierazi du Gorka Sotok. Talde filialen laguntza jasotzen du BATek, halabeharrez, ligarako. Dena den, klubeko atleten ilusioari eusteko hasi ziren ligan parte hartzen. Ibon Muñozek argi utzi du haien baliabideekin lehiatzeko gai ez direnean, liga alde batera utziko dutela.

Horregatik, nesken taldeak Ohorezko Mailan “ikaragarri” sufrituko lukeela uste du Muñozek: “Mailari eusteko borrokatzea oso ezberdina izango litzateke”. Era berean, azaldu du babesle handi bat ate joka etorri ezean, klubarentzako onura handirik ez zuela suposatuko: “Bidasoa Atletiko Taldea Ohorezko Mailan egon dela esan ahal izango genuke, besterik ez”. Hala ere, Teresa Zaragüetaren eta bere taldekideen ilusioa aintzat hartuta, ahaleginak merezi izango duela esan daiteke.

Atletismoa eta askoz gehiago, udaran

Udako kirol ikastaroak eskainiko ditu Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Atletismo Udalekuak izeneko ekimena antolatu du, Singular Iñigo Lavado jatetxearekin eta Irungo Udalarekin elkarlanean. Uztailan eta abuztuan egingo dituzte udalekuak, 5 eta 16 urte arteko haurrei eta gaztetxoei zuzenduta. Aste baterako edo gehiagorako izena eman ahal izango du bakoitzak. Bazkaririk gabeko aukerak 80 euro balioko du aste bakoitzeko, eta Singular Iñigo Lavado jatetxean bazkaria eskaintzen duenak 120 euro. www.atletismobat.com web gunean eman daiteke izena.

%10eko beherapenak eskainiko ditu BATek, ondorengo kasuetan: maiatzaren 31 baino lehen izena ematen dutenei, anai-arrebak apuntatzen dituztenei, klubeko bazkideei, 2016an atletismo eskolako ikasle izan direnei eta bi asterako edo gehiagorako izena ematen dutenei. “Kamiseta eta motxila emango diegu denei”, gogorarazi du Gorka Sotok. Jarduerarekin “kontent” daudela baieztatu du Ibon Muñozek: “Urtero inkestak egiten ditugu iritziak eta iradokizunak jasotzeko, eskaintza hobetzeko asmoz”.

Une erabakigarrian, kale

Igoera faseko finalerdia galdu du Erroibidek, ligan bigarren izan ondoren

Denboraldi ona osatu du Erroibide Saskibaloi Elkarteko gizonezkoen talde nagusiak. Azken urteotako onena. Bigarren izan da Estatuko Bigarren Mailako multzoan, eta Lehen Mailara igotzeko lehian parte hartu du. Erregularra izan da denboraldiaren zatirik handienean, baina norgehiagoka erabakigarrietan, huts egin du. "Partida garrantzitsuetan presioak eragina izan du", aitortu du Bearn Lartigue jokalariak. Apirilaren 17an, Askatuak liderraren huts egitearen ondoren, zuzenean igotzeko aukera ematen duen lehen postuan kokatzeko abagunea izan zuen Cárnicas San Marcial-Erroibidek. 59-64 galdu zuen, ordea, Tecnun taldearen kontra, Artalekun.

"Artalekutik atera behar izatea eragozpena izan da"

Gonzalo Martínez, entrenatzailea

Bigarren tokian amaitu zuen liga Erroibidek, eta play off-a antolatzeko aukera lortu zuen horrela. Baina maiatzaren 14an Bidasoa eskubaloi taldeak Artalekun jokatzen zuenez, Irundik kanpo antolatu behar izan zuen fasea. Donostiako Tecnun-en aritu ziren taldeak, hain zuzen ere. Argi hitz egin du Gonzalo Martínez entrenatzaileak, gaiaren inguruan: "Pistak eragina izan du. Artalekun denboraldi osoan zehar entrenatzen eta jokatzen dugu. Handik atera behar izatea eragozpena izan da". Dena den, Erroibide bigarren sailkatua zenez, bosgarrenaren kontra aritu zen, lehen finalerdian. Ordiziako Goierri-Verkol mendean hartuta, hurrengo egunean finala jokatzeko helburua zuen Erroibidek. Hasieratik agerian gelditu zen, hala ere, lan zaila izango zutela irundarrek.

Hasiera bizi-bizia izan zuen norgehiagokak. Goierritarrek izan zituzten lehen abantailak, baina Erroibidek agintea eskuratu zuen beranduago. 12-9ko abantaila ere hartu zuten irundarrek. Ondoren, erabateko hondamendia iritsi zen. Lehen laurdenaren amaieran, eta bigarrenaren hasieran, lehiatik kanpo utzi zuen Ordiziak Erroibide. 18-0eko partzialarekin, 12-27ra ihes egin zuen. Defentsan sendo aritu ziren goierritarrak, eta joko sinple bezain eraginkorra erakutsi zuten erasoan. Erroibide "trabatuta" ibili zela onartu zuen Bearn Lartiguek: "Ez genuen aurkaria gelditzeko modua topatzen". 21-35eko emaitza adierazgarriarekin iritsi zen atsedenaldia.

"Denboraldiarekin pozik egon gaitezkeela iruditzen zait"

Bearn Lartigue, jokalaria

Nahi eta ezin

Erreakzio handia behar zuen Erroibidek hirugarren laurdenean, eta intentzio horrekin irten zen. Intentsitate handiarekin aritu zen lehen minutuetan, eta abantaila murriztea lortu zuen. Laurdena amaitzerako, ordea, hamabiko abantaila zuen berriro Ordiziak (38-50). Azken laurdenean ezinean aritu zen Erroibide. Aurkariak eroso eutsi zion aldeari, estualdi handirik pasa gabe. Irundarrak ordea, presaka ibili ziren, eta erabaki okerrak hartu zituzten behin baino gehiagotan. "Nekeak eragina izan zuela uste dut", adierazi du Amaury Martínezek. Bigarren laurdeneko zama handiegia zela azaldu du entrenatzaileak: "Desabantaila murriztuz joan ginen, eta bost puntura hurbildu ginen. Baina urrunegi zeuden".

"Nekeak eragina izan zuela uste dut"

Amaury Martínez, jokalaria

52-64 galdu zuen azkenean Erroibidek, ligako sailkapeneko bosgarrenaren kontra. "Lauko finalak horrelakoak dira. Edonoren aurka irabazi edo galdu dezakezu", nabarmendu du Gonzalo Martinezek. Denboraldiaren amaiera tristea izan den arren,balorazio baikorra egin du Bearn Lartiguek: "Egun hauetan zapore garratza izango dugu, baina pasatzen denean, denboraldiarekin pozik egon gaitezkeela iruditzen zait".

Filialaren igoera

Senior mailako bigarren taldeak, Don Jabugo Ensanche Erroibidek, Gipuzkoako Lehen Mailara igotzea lortu du. Bigarren izan da ligan, eta Viento Sur taldea menderatu du mailaz igotzeko kanporaketan.

Laster zabalduko dute Palmera-Montero gizarte zentroa

Mondragon Unibertsitatearen egoitza hartuko du eraikinak

Barrualdea atontzen ari dira Palmera-Montero gizarte zentroan. Aurreikuspenen arabera, udarako egongo da martxan. Hiriko hamaika elkarteren egoitzak hartuko ditu ekipamendu publikoak. Gainera, balio anitzeko aretoak eta erakusketa gelak izango ditu. Bestalde, erabilera komertzialerako lokalak egongo dira, dagoeneko irekita dagoen supermerkatuarena, esaterako. Aparkalekuak ere martxan daude. Polemika sortu duen erabilera, ordea, Mondragon Unibertsitatearen egoitzarena da. 1.800m² izango ditu unibertsitateak eraikinean.

Dunboako anbulatorioaren pareko lanek forma hartu dute, eta eraikinaren erabileraren berri ere izaten ari dira, pixkanaka, herritarrak. Esaterako, lurpean dauden aparkalekuak erabiltzen ari dira, jada, inguruko bizilagunak. Martxoan, bertan kokatutako BM supermerkatuak ateak ireki zituen. 2.105m²ko azalera hartzen du, eta bezeroentzako aparkaleku propioa du. Erabilera komertzialerako lokal gehiago ere badaude, maizter berrien zain. Gainerako ekipamendua atontzeko azken lanetan ari dira beharginak, eta udalaren aurreikuspenen arabera, udarako egongo da prest.

> "Palmera-Monterora lekualdatzen diren elkarteek libratzen dituzten udal espzioak beste batzuei eskainiko dizkiegu"
>
> **Pedro Alegre, Hiritarren Informazioa eta Parte Hartzea arloko ordezkaria**

Espazioaren erdia kudeatuko du Irungo Udalak, 3.607m², guztira. Hamaika elkarte izango dira, printzipioz, ekipamenduaren erabiltzaile nagusi. Bigarren solairuan, sei bulego txiki (18-21m² artekoak), bulego ertain bat (28m²) eta lau handi (33-45m²) egongo dira. Lehen solairuan, balio anitzeko eta erabilera partekatuko areto komunak egongo dira, erabiltzaile diren elkarteen esku. Beheko solairuan erakusketa gela eta auzoko bizilagunen jardueretarako aretoak egongo dira.

Ekipamendu publikoaren erabiltzaile izango diren elkarteen izenik ez du eman, oraingoz, Irungo Udalak. Horiek zehazteko lanean ari direla azaldu du Pedro Alegre Hiritarren Informazioa eta Parte Hartzea arloko ordezkariak. Erabilera Planaren irizpideak jarraitu dituztela baieztatu du. Besteak beste: lekualdatzen diren elkarteek gutxienez bost urteko ibilbidea izatea, publikoarekiko arreta lantzen duten elkarteak eta arlo sozialarekin, kulturalarekin eta parte hartzearekin harremana dutenak lehenestea, eta haien jarduera espaziorako egokia ote den kontuan hartzea.

Irunen azken urteotan lokalak eskatu dituzten elkarteen kopurua handia da. Pedro Alegrek adierazi du eskaeraren zati bati erantzun ahal izango diola udalak: "Palmera-Monterora lekualdatzen diren elkarteek libratzen dituzten udal espazioak beste entitate batzuei eskainiko dizkiegu". Gaur egun, elkarte ezberdinei utzitako 50 bat lokal edo pisu ditu udalak.

Mondragon Unibertsitatearen egoitza ere hartuko du

Palmera-Montero ekipamendu publikoko 1.800m² utziko ditu Irungo Udalak Mondragon Unibertsitatearen esku. Irungo Ducoreau eraikinetik Palmera-Monterora lekualdatuko dute unibertsitatearen egoitza. Si Se Puede Irun Ahal Dugu Podemos-eko udal taldeak gogor salatu du erabakia, udalak lurzoru publikoa unibertsitate pribatuari "oparitu" diola iritzita. "Diru publikoa erabili da eraikin bat egiteko, eta eraikin horrek erabilera pribatuak izango ditu", azpimarratu du Irun Ahal Duguko Miren Etxebestek.

> "Diru publikoa erabili da eraikin bat egiteko, eta eraikin horrek erabilera pribatuak edukiko ditu"
>
> **Miren Etxebeste, Irun Ahal Duguko kidea**

Change.org web gunean 800 sinadura bildu ditu Irun Ahal Duguk, unibertsitateak gizarte zentroan lekua edukitzearen aurka. Eztabaida sortu nahi izan dutela onartu du Etxebestek: "Jendeak hitz egin dezan, eta udalaren politikak eta proiektuak zalantzan jar ditzan nahi dugu". Miguel Ángel Páez alkateordeak sinadura bilketa "errespetagarria" dela adierazi du, baina zalantzan jarri du haren balioa: "Change.org plataforma ezagutzen dut, eta Azerbaijandik Paraguayrainoko sinadurak biltzen ditu. Jakin nahi nuke zenbat irundarrek sinatu duten".

Udal gobernuak erabakia defendatu du, Mondragon Unibertsitatea Irunen edukitzea "estrategikoa" dela argudiatuta. "Egia da unibertsitate pribatua dela, baina onura publikoko erakunde gisa onartua dago", gogorarazi du Miguel Ángel Páez alkateordeak: "300 ikasle ditu Irunen, eta unibertsitatearekin kolaboratzen duten 250 enpresa daude. Hiriko sare asoziatiboa, enpresariala eta ekonomikoa ehuntzen laguntzen du". Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, eta Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (Leinn) graduak eskaintzen ditu Mondragon Unibertsitateak Bidasoko kanpusean. 300 ikasleek Palmera-Monteron ekingo diote hurrengo ikasturteari.

El Pilar HH

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

San Vicente de Paul DBH1

TXISTEAK

INURRIEN SOINUA

Bi ikaslek Pernando tentatzeko nahian galdera hau egin zioten:

-Adizu Pernando, han goiko harkaitz hartan iladan doazen inurri horiek ikusten al dituzu?

-Ez.Nik ikusteko urrutiegi dago hura.Ikusi, ez ditut ikusten baina inurrien oin hotsak argi eta garbi entzuten ditut.Zuek ez ala?

-Ez.

-Nik begietan daukadan akatsa zuek nombait belarrietan daukazue.Arre asto arrel-eta aurrera jarraitu zuen bere astoarekin.

PERNANDOREN HERIOTZA

Egia ala gezurra ,ez dakigu baina Amezketan diotenez,gehiegi jan ondoren ura edan omen zuen Pernandok.Eta hiltzeko zorian zegoela hau esan zuen:

-"Nik hiltzen naizenean zabaldu jendearen artean berri hau:beti erdi-goserik eta mixerian bizi izan arren,Pernando ez duela goseak hil ;ongi aseta hil naizenean.

GALDERA

-Aita zer uste duzu hain seme galant bat edukitzeagatik?

-Ez dakit seme hori aitonari galdetu.

Nahia Echeverria Jaroneš
2°a

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irungo S.R.A. andereari jasoa (1959-IV-26).
(El Bidasoa, 1959-V-16)

Aldabeko

Aldabeko
Sagarraren
Adarraren
Punttaren punttan
Txoritxua zaguen kantari
Txiru-riru-ri
Txiru-riru-ri
Txiru-riru-ri
Txiru-riru-ri

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Dantzak harrapatuta

Lehiaketetan aritzen diren taldeak ditu Pauso-K akademiak

Aisialdiko jarduera da dantza, haur eta gazte askorentzat. Astean bi orduz joaten dira klaseetara, lagunekin ondo pasatzeko eta ariketa fisikoa egiteko asmoz. Beste batzuek, ordea, denbora gehiago eskaini nahi izaten diote, koreografiak prestatu eta lehiaketetan parte hartzeko. Pauso-K dantza akademia duela sei urte hasi zen lehiaketetako taldeak prestatzen. Gaur egun zortzi talde dira, adin ezberdinetakoak. Dantza denboraldian bete-betean murgilduta daude orain.

Txoko Kids, txikienen taldea.

Black Label, gurasoen taldea.

Gaur egun maila absolutuan aritzen den taldea izan zen lehiaketetara aurkezten lehena. Aduna Mitxelena da talde horretako kide, eta lehiatzen hastearen arrazoien berri eman du: "Ordu gehiago sartu nahi genituen, dantzari denbora gehiago eskaini". Helburu gisa lehiaketak edukitzeak ohiko entsegu orduez aparteko entrenamenduak eskatzen ditu, baina gustura aritzen dira. "Estilo gehiago landu ditzakegu horrela, eta kanpoko jendearen master classak jasotzen ditugu", argitu du Mitxelenak.

> "Haurren interesaren arabera sortzen ditugu lehiaketetako taldeak"
> **Aduna Mitxelena, entrenatzailea eta dantzaria**

Denborarekin taldeak gehituz joan dira, eta gaur egun, lehiaketetan aritzen diren zortzi talde ditu Pauso-K akademiak. Kategoria guztietan dituzte ordezkariak. 7-8 urte ingurukoak dira txikienak, eta Premium izeneko beteranoen kategorian aritzen dira helduenak. Beste taldeetan dabiltzan neska-mutilen gurasoak dira gehienak. "Lehiaketetara ikusle gisa joaten ziren, eta probatzeko gogoa sartu zitzaien. Hasiberriek diren arren, oso ondo dabiltza", azaldu du Aduna Mitxelenak.

> "Sariak ematen dituzten momentua gustatzen zaigu"
> **Nabil**

Dantzatzera animatu edo ez, gurasoen inplikazioa beharrezkoa izaten da dantza lehiaketetan aritzeko. Otsailean hasten da denboraldia, eta ekainera arte ia astebururo izaten dituzte lehiaketak. Urrun samar joan behar izaten dute batzuetan, eta lehiaketak goizean-goiz hasten baldin badira, gaua ere kanpoan pasa behar izaten dute. Gainera, izenemateak eta ikusleentzako sarrerak garestiak izaten dira. Hori dela eta, denbora eskaintzeaz gainera, gurasoek ahalegin ekonomikoa ere egin behar izaten dutela onartu du Mitxelenak.

> "Urduri jartzen gara"
> **Aiala**

Gurasoen babesaz gainera, noski, ezinbestekoa da haurren interesa. Aduna Mitxelenak baieztatu du "segituan" antzematen zaiela haurrei dantzari denbora gehiago eskaini nahi dioten edo ez: "Interes horren arabera osatzen ditugu lehiaketetako taldeak". Hip hop-a lantzen dute taldeek orokorrean, eta estilo horren baitako aldaerak jorratzen dituzte koreografietan. Otsailean hasten dira lehiaketak, baina urrian ekiten diete koreografien prestaketari eta lanketari. "Hilabetetan lokalean landutakoa aurkezten dugu, gero, lehiaketetan", adierazi du Mitxelenak.

Txoko Kids taldearen ilusioa

Talde gazteenaren entrenatzailea da Aduna Mitxelena. 7-8 urte inguruko haurrak dira, eta Txoko Kids izenarekin ari dira lehiatzen. Bigarren urtea dute taldearekin. Argi utzi dute oso gustura dabiltzala. "Telebistan ikusten nuen dantza, eta horregatik apuntatu nintzen", azaldu du Nabilek. Mutil bakarra da taldean. Mitxelenak onartu du gero eta mutil gehiago ikusten diren arren, oraindik ere neskak askoz gehiago direla. "Sariak ematen dituzten momentua gustatzen zaigu", aipatu du Nabilek, taldekideen irriak eraginez. "Urduri jartzen gara", aitortu du, hala ere, Aialak.

Apirilaren 30ean bigarren izan dira Bilboko Euskaldunan egin duten D'Zanp txapelketan. Tuteran eta Santanderren irabazi dute, lehenago. Gainera, datorren urtean Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu dute. Bartzelonan izango da. "Lehiaketa batzuk oso urrun izaten dira, beste batzuk hurbilago", nabarmendu du Aialak. Aduna Mitxelena entrenatzaileak onartu du lehiaketei esker "esperientzia ederrak" bizitzen ari direla haurrak. "Baina irabazten ez baldin badugu, ez da ezer gertatzen", gogorarazi die haurrei. Baiezkoa egin dute denek, zintzo.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

AZTERKETAK!!!!!!!!! IKASKETA GELAK ORDUTEGIA LUZATZEN DU

Azterketa garaia heltzear dela eta, maiatzaren 14tik ekainaren 26ra bitartean CBA Liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du.

Ordutegia:
- Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 20:00.
- Larunbatak: 9:000 - 13:00 / 15:00 - 20:00.
- Igandeak: 9:00 - 13:00.

Gainontzeko zerbitzuek ohiko ordutegiarekin jarraituko dute.

AISIALDIKO BEGIRALE BAT BEHAR DA

Adiskidetuak elkarteak aisialdiko monitore bat behar du udaleku ireki baterako, 2016ko uztailean.

Baldintzak:
- Aisialdi titulua izatea.
- Elebiduna izatea (euskara-gaztelania).

Eta zure aisialdi begirale titulua lortzeko praktikak behar badituzu,praktiketako 2 monitore ere behar dituzte.

Bidal ezazu CV-a helbide honetara: adiskidetuak@yahoo.es

SOROSPEN ETA LEHEN LAGUNTZARAKO IKASTAROA IRUNEN

Datak: ekainaren 13tik 24ra.

Ordutegia: 17:30etatik 21:30etara, astelehenetik ostiralera.

Lekua: Irungo Gurutze Gorria (Euskal Herria hiribidea, 14, behea).

Prezioa: 110 €.

Izen emateak: 943 62 11 62.

Antolatzailea: Gurutze Gorria.

Gazteen Nazioarteko Mugikortasun Zerbitzua estreinatuko du Irunek

Gaztea bazara eta bidaiatu, ikasi, beste kulturak ezagutu, boluntario lana egin, hizkuntzak ikasi edo arlo pertsonalean garatu nahi baduzu... Nazioarteko mugikortasun alorrean dauden aukerak eta programak hedatzeko aukera emango du Irungo Udalak, hiriko gazteek nazioarteko esperientziak bizi ahal izan ditzaten.

Bestalde, praktikak bilatzeko orientazioa ere landuko da, bai maila indibidualean eta bai ikastetxeetan, eta beste herrialdeetako jardueretan parte hartzeko orientazio pertsonalizatua emango da: ikasketak, hizkuntzak ikastea, enpresetan praktikak, lana, laneko kanpamendu eta udalekuak, trukeak, e.a.

Etor zaitez IGaztera (CBA Kultur Gunea, San Juan Harria plaza), astelehenetik ostegunera 17:00etatik 19:30etara, eta asteartetan goizez, 10:00etatik 14:00etara.

Argibide gehiago nahi izanez gero, aldez aurretik hitzordua eskatu ahal izango da posta elektroniko bidez: gazteria@irun.org. Edo 943505446 telefono zenbakira deituta.

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Boluntariotza Europako Boluntariotza Zerbitzuarekin

DGT erakundeak bultzatutako proiektu bat da. Gazteekin eta elkarteekin alfabetatze digitalari buruzko proiektu batean parte hartuko duzu.

Gainera, Italiako, Poloniako eta Espainiako 5 boluntariok osatutako talde batean sartzeko aukera izango duzu.

Helmuga: Bukarest (Errumania).

Iraupena: 10 hilabete (2016ko uztailetik).

Norentzat: 18 eta 30 urte arteko gazteentzat.

Zereginak:
- Bulegoko lana erakundean: Web-orriaren eta gizarte-sareen kudeaketa.

- Tokiko irratian lan egitea.

- "Noformal" klubean lan egitea: gazteen heziketa formala ez den heziketaren eta aisialdiaren bidez.

- Idazketa eta nazioarteko proiektuak zein proiektu nazionalak kudeatzea.

Proiektua Erasmus + Programak finantzatzen du. Ondorengoak daude barne: bidaiak, ostatua, mantenua, mediku-asegurua eta patrikako dirua hilero.

Informazio gehiago nahi duzu? Pasa zaitez Irungo Nazioarteko Mugikortasun Zerbitzutik, Irungo CBA (San Juan plaza, -1 solairua). Astelehenetik ostegunera 17:00etatik-19:30etara / Asteartetan, 10:00etatik - 14:00etara

Anima zaitez!

SAN ISIDRO JAIAK - LANDETXA AUZOA

Maiatzak 20

- 17:30: 12-17 urte arteko nerabeentzako ekintzak frontoian: Pin Pong txapelketa, alpargata giltzatako tailerra, Slack-Line eta DJ-a. (Martindozenea Gaztelekua)

- 19:00: "El mercado del arte" antzerki-lana TGorrieta taldearen eskutik AEan.

- 20:00: Pintxo potea auzoko tabernetan eta txosnan.

- 22:00: Antxeta Irratia-15 urte uhinak orrazten. Kontzertuak: Luz de Putas eta talde sorpresa. (Antxeta Irratia)

Maiatzak 21

- 10:00: XXXVII. Plater tiroketa Arkalen. (Hegazti Elkartea).

- 10:30: Aldibereko xake partidak frontoian. (Landetxako Xake Eskola eta Marlaxka Kluba).

- 12:00: Helduentzako xake txapelketa frontoian. (Landetxako Xake Eskola eta Marlaxka Kluba).

- 14:00: Bazkaria eta sari banaketa Hegazti Elkartean (Hegazti Elkartea).

- 17:00: Parkour erakustaldia auzoan zehar, frontoitik hasita.

- 17:00: Musika eta dantza erakustaldia frontoian, Elatzeta ikastetxeko ikasleen eskutik: Musika, gimnasia erritmikoa eta gaur egungo dantza (Elatzeta IGE).

- 17:30: Disney pertsonaien bisita Taberna Berrian. (Taberna Berria)

- 18:30: 9 eta 15 urte bitarteko haurrentzako quad zirkuitua frontoian.

- 19:00: Supernova Noise taldearen kontzertua Taberna Berrian. (Taberna Berria)

- 19:00: Photocall Disney pertsonaiekin, Espinete eta Don Pimponekin, frontoian.

- 20:00: Urdaiazpiko ebakitzailea Taberna Berrian. (Taberna Berria)

- 21:15: Suzko malabareen erakustaldia Armiarma Compagnieren eskutik frontoian.

- 22:00: Kontzertuak frontoian: Sangre de Mono, Son de Rue eta Mountain Sound.

MasterChef

Maiatzak 22

- 10:30: Master Chef Junior 7-15 urte bitarteko haurrentzat frontoian. Lehenagotik eman izena AE-an. (Gazte-Landetxa eta Elatzetako Gurasoen Elkartea).

- 17:00: Ekintzen erakustaldia frontoian:

·Karatea, Furikazan Dojo taldearen eskutik.

·Capoeira Tribo taldearen eskutik.

·Afrikar dantzak Arexivu taldearen eskutik.

·Sabel dantza Lubna-ren eskutik.

·Zumba Ainhoaren eskutik.

Maiatzak 17

Zer? Bertso Gaua.

Non? Amaia KZn.

Ordua? 18:00etan.

Prezioa? Doako sarrera.

Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsozaleen Elkarteak, Irungo Eskolek eta Irungo Udalak antolatua.

Maiatzak 20 - Ekainak 12

Zer? Elkartasun Zumbathoia. Aurreratu elkarteak eta C.D.Bidasoak elkarlanean antolatua.

Non? Amaia KZn.

Ordutegia?
Asteartetik larunbatera 18:00-21:00 / Igandetan eta jaiegunetan 11:30-13.30

Prezioa? Doako sarrera.

Maiatzak 26

Zer? Aurten, berriro antolatu du Bidasoa Bizirik-ek KREA Bidasoa topaketa. Ekitaldiaren helburua da harremanak egitea, aukerak identifikatzea, beste esperientzia batzuk eta arrakasta-kasuak ezagutzea, ezagutzak zabaltzea, nazioartekotzea...

Non? Ficoban.

Ordua? 9:00etatik 20:00etara.

Prezioa? Doako sarrera.

Programa eta informazio gehiago:
www.bidasoa-activa.com

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berokuntza elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 93.000 €

Pisua salgai Hendaian
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portun
Azalera 82 m², 3 gela, bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, trastelekua eta bista politekin.
Pisu erreformatua.
Ref: 04422 180.000 €

Pisua salgai Irun Alde zaharran
PRIMERAKO AUKERA!!
Azalera 35 m², gela 1, bainugela, komuna, egongela, sukaldea. Ereikuntza eta pisua erreformatuak.
Ref: 04399 70.000 €

Pisua salgai Irun Palmeran
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 52 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea
4. pisua igogailurik gabe.
Ref: 04464 82.000 €

Pisua salgai Irun Arbes
Azalera 67 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, eguzkitsua eta bista politekin.
Ref: 04441 165.000 €

Pisua salgai Hondarribian
Azalera 46 m², 2 gela, bainugela 1, egongela eta sukaldea.
Pisu erreformatua
Ref: 04435 140.000 €

Etxea salgai Hendaian
Azalera 110 m², 3 gela, bainugela 1, komun 1, egongela, sukaldea, terraza, jardina, gas berokuntza eta eguzkitsua. Alde oso lasaia.
Ref: 04336 285.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

Don Jabugo

Giro atsegina eta kalitatezko produktuak Don Jabugon.
Hurbil zaitez eta dasta itzazu gure urdaiazpikoa, pintxoak eta plater konbinatuak.

Tel: 943 020 624
Zabaltza plaza, 8